

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Hornitzaileak eta bazkideak funtsezkoak dira enpresa batek arrakastatsua izateko, funtzionatzeko beharrezkoak diren baliabideak, esperientzia eta teknologia ematen dituztelako. Alde batetik, hornitzaileek produkziarako behar diren baliabideak ematen dituzte. Bazkideek, berriz, esperientzia ematen dute eta arriskuak, kostuak eta berrikuntzak partekatzen dituzte. Elkarrekin, lehiakortasuna hobetzen dute, merkatuak irekitzen dituzte eta enpresaren hazkunde iraunkorrari laguntzen diote.

Alertadun eserlekuen sistemaren proiektuak behar bezala funtziona dezan, funtsezkoa da hainbat bazkide eta hornitzaile izatea.

Lehenik eta behin, teknologia eta hardware hornitzaileek alerta-botoiak eta komunikazio-sistemak garatuko lituzkete, alertak segurtasun-langileengana edo gidariengana azkar iritsiko direla bermatzeko. Softwareko eta segurtasuneko bazkideak ere beharko lirateke alertak denbora errealean kudeatzeko, larrialdien aurrean erantzun azkarra ziurtatuz. Horrela, laguntza behar duen pertsonak azkar eta eraginkortasunez lor dezake laguntza, bere segurtasuna bermatuz.

Bestalde, garraio publikoko operadoreak, hala nola autobus-zerbitzuak, funtsezkoak izango lirateke sistema ibilgailuetan ezartzeko eta langileekin koordinatzeko. Gainera, instalazio- eta mantentze-enpresen ardura izango litzateke sistema behar bezala instalatzea eta erregulartasunez mantentzea.

Azkenik, marketin-enpresak beharrezkoak izango lirateke erabiltzaileek sistema onar dezaten sustatzeko eta behar bezala erabiltzen dela bermatzeko. Halaber, oso garrantzitsua izango litzateke botoia arduraz erabiltzea arduratzen den elkarte batekin harremanetan jartzea. Horrela, erabiltzaileak zerbitzuaren erabilera egokiaz kontzientziatuta egongo dira.

Laburbilduz, bazkide eta hornitzaile horiek guztiak funtsezkoak dira sistemaren funtzionamendua, segurtasuna eta eraginkortasuna ziurtatzeko. Gainera, bazkideak beharrezkoak dira gure enpresarentzak akzioak erosiko dutelako eta diru horrek gure enpresa aurrera eramateko lagungarria izateko.